

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

14. BILERA AKTA

EGUNA: URRIAK 17, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HERRIKO ETXEKO PLENO ARETOA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA

IRAIN GURASO ELKARTEA

GEROA BAI UDAL TALDEA

MAIRU ANTZERKI TAILERRA

LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA

S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.

LESAKAKO ABESBATZA

GILTZARRI ABESBATZA

LESAKAKO SOINULARIAK

ELUTXA TXARANGA

EH BILDU UDAL TALDEA

KULTURA TEKNIKARIA

AINZINAKO AKTA ONARTZEA

Azkeneko aktaren inguruan aipatzen da hurrengo bileraren data urriak 17 jarri beharrean urriak 7 jartzen duela. Zuzenduko da.

UDAKO ZIKLOAREN BALORAZIOA

Udako Zikloaren balorazio datuak aurkezten dira (taula atxikitzen da). Hasiera bateko aurrekontua eta behin betiko gastuak aurkezten dira. Denetara 17.000 € inguru izan da. Zikloan zehar aldaketak edo aurreikusi ez zirenak izan dira eta horrek eragin du gastuen igoera. Alde batetik gastu teknikoak, hasieran kontabilizatu ez zirenak, eta amaiera ekitaldia izan dira gehien igo dutenak gastuen kopurua. Egoera ikusita hasiera batean pentsatu zen itxiera ekitaldia ezin izan zen burutu eta hamar egunez zerbait egin eta zer egin erabaki behar zen. Zea Maysekin kontaktatu zen., prezioa adostu eta irailaren 20ean emanaldia eskeini zuten Harriondoan.

Harriondoako urteko gastuak eta Udako Zikloaren gastuak kontutan hartuz oraindik badago aurrekontua urte bukaera arte zerbait ekartzeko. Bertaratuen artean aipatzen da eta kontaktu batzuk egitea adosten da (Ainra Ortega, Amak, Abesbatza...).

LIBURU XURIA

Ze eragilek aurkeztu duen testua aipatzen da eta falta direnak aurkezteko behin betiko epe muga bat jartzea adosten da. Azkeneko eguna azaroaren 7a izanen da. Udalatik mezu bat bidaliko da denei hau aipatuz eta azkeneko epea izanen dela azpimarratuz.

HARRIONDOAKO ARAUDIA

Harriondoako araudia berriro bidaliko da. Udalatik hurrengo bilerarako aldaketak edo proposamenak ekarriko dira eta bertan aterako dira.

2021ERAKO DIRUALGUNTZA ESKAERA

2021erako dirulaguntzak eskatzeko epea azaroak 30 jartzea adosten da.